

**EEE, CADEM, SHESA, BIMEP ETA HARANA-
KONTRASTAREN KONTRATAZIO BATZORDEEN
FUNTZIONAMENDUAREN ETA
ANTOLAKETAREN ARAUDIA ONARTZEN DUEN
AKORDIOA**

**ACUERDO POR EL QUE SE APRUEBA EL
REGLAMENTO DE ORGANIZACIÓN Y
FUNCIONAMIENTO DE LOS COMITÉS DE
CONTRATACIÓN DE EVE, CADEM,
SHESA, BIMEP Y HARANA-KONTRASTA**

Bilbon, 2025eko apirilaren 1ean

En Bilbao, a 1 de abril de 2025

MIKEL AMUNDARAIN LEIBAR jn., ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEko (EEE) kontseilaria - zuzendari nagusia, EUSKADIKO HIDROKARBURUOK SOZIETATEA, S.A.ko (SHESA) presidentea, HIDROELECTRICA HARANA KONTRASTA, S.A.ko (HARANA-KONTRASTA) presidentea, BISCAY MARINE ENERGY PLATFORM, S.A.ko (BIMEP) presidentea eta CENTRO PARA EL AHORRO Y DESARROLLO ENERGETICO Y MINERO, S.A.ko (CADEM) Presidentea den aldetik.

D. MIKEL AMUNDARAIN LEIBAR, en su condición de Consejero - Director General del ENTE VASCO DE LA ENERGÍA (EVE), Presidente de la SOCIEDAD DE HIDROCARBUROS DE EUSKADI, S.A. (SHESA), Presidente de HIDROELECTRICA HARANA KONTRASTA, S.A. (HARANA-KONTRASTA), Presidente de BISCAY MARINE ENERGY PLATFORM, S.A. (BIMEP) y Presidente de CENTRO PARA EL AHORRO Y DESARROLLO ENERGETICO Y MINERO, S.A. (CADEM).

ADOSTEN DU

ACUERDA

I. EEE, SHESA, HARANA-KONTRASTA, CADEM eta BIMEPen Kontratazio Batzordeen Funtzionamenduaren eta Antolaketaren Araudia onartzea, AKORDIO honekin batera doana, I. eranskinean.

I. Aprobar el Reglamento de Organización y Funcionamiento de los Comités de Contratación del EVE, SHESA, HARANA-KONTRASTA, CADEM y BIMEP, que se adjunta a modo de **Anexo I** al presente ACUERDO.

D. MIKEL AMUNDARAIN LEIBAR Jn.

EEE, CADEM, SHESA, BIMEP ETA HARANA-KONTRASTA KONTRATAZIO BATZORDEEN FUNTZIONAMENDUAREN ETA ANTOLAKETAREN ARAUDIA

1. Izaera

EEE Taldeko erakunde/sozietate bakoitzarentzako Kontratazio Batzorde iraunkor bat eratzen da:

- ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA (EEE).
- EUSKADIKO HIDROKARBURUOAK SOZIETATEA, S.A. (SHESA).
- HIDROELECTRICA HARANA KONTRASTA, S.A. (HARANA-KONTRASTA).
- CENTRO PARA EL AHORRO Y DESARROLLO ENERGETICO Y MINERO, S.A. (CADEM).
- BISCAY MARINE ENERGY PLATFORM, S.A. (BIMEP).

Kontratazio Batzordea kontratazio organoari laguntzeko organo tekniko, kide anitzeko edo kolegiatu eta espezializatu moduan eratzen da, lizitatzen diren kontratuen esleipena objektibatzeko xedez.

2. Osaera

Kontratazio Batzordeak, kasu guztietan, honako kide hauek osatuko dute:

- Presidentea: EEEko Energiaren Plangintza eta Erregulaziorako zuzendaria.
- Batzordekideak:
 - EEEko Zerbitzu Korporatiboan Zuzendaria.
 - EEEko Ekonomia - Finantzako arduraduna.
 - Prozesu eta Kudeaketarako Zuzendaria.
- Idazkaria: EEEko Zerbitzu Juridikoen Teknikaria.

Eta gainera, EEE Taldeko erakunde/sozietate bakoitzaren Kontratazio Batzordean, batzordekideak izanik, honako kargu hauek izango dira:

- EEE: EEEko zuzendari teknikoa.
- SHESA: SHESAko arduradun teknikoa.
- HARANA-KONTRASTA: EEEko zuzendari teknikoa.
- CADEM: EEEko zuzendari teknikoa.
- BIMEP: EEEko zuzendari teknikoa.

REGLAMENTO DE ORGANIZACIÓN Y FUNCIONAMIENTO DE LOS COMITÉS DE CONTRATACIÓN DEL EVE, CADEM, SHESA, BIMEP Y HARANA-KONTRASTA

1º) Naturaleza

Se constituye un Comité de Contratación permanente para cada Ente/Sociedad del Grupo EVE:

- ENTE VASCO DE LA ENERGÍA (EVE).
- SOCIEDAD DE HIDROCARBUROS DE EUSKADI, S.A. (SHESA).
- HIDROELECTRICA HARANA KONTRASTA, S.A. (HARANA-KONTRASTA).
- CENTRO PARA EL AHORRO Y DESARROLLO ENERGETICO Y MINERO, S.A. (CADEM).
- BISCAY MARINE ENERGY PLATFORM, S.A. (BIMEP).

El Comité de Contratación se constituye como un órgano técnico, colegiado y especializado de asistencia al órgano de contratación al efecto de objetivar la adjudicación de los contratos licitados.

2º) Composición

Los Comités de Contratación estarán formados, en todos los casos, por los siguientes miembros:

- Presidente/a: Director de Planificación y Regulación Energética del EVE.
- Vocales:
 - Director de Servicios Corporativos del EVE.
 - Responsable Económico - Financiero del EVE.
 - Directora de Procesos y Control de gestión del EVE.
- Secretario/a: Técnica de Servicios Jurídicos del EVE.

Y además, en el Comité de Contratación de cada uno de los/las Entes/Sociedades del Grupo EVE, con la condición de vocal, los siguientes cargos:

- EVE: Director Técnico del EVE.
- SHESA: Responsable Técnico de SHESA.
- HARANA-KONTRASTA: Director Técnico del EVE.
- CADEM: Director Técnico del EVE.
- BIMEP: Director Técnico del EVE.

Batzordekideren bat ez bada bertaratzen, bileran egongo den beste edozein Batzordekideren esku utzi ahal izango da botoa. Era berean, idazkaria ez bada bertaratzen, bilerara bertaratutako edozein kidek beteko ditu eginkizunak, ekitaldiaren hasieran izendatuko delarik.

3. Zereginak eta eskuduntzak

Kontratazio Batzordearen zereginak eta eskuduntzak hauexek izango dira:

- a) EEE, SHESA, HARANA-KONTRASTA, BIMEP eta CADEMi dagozkien kontratazio espedienteek eta agiriek kontratazioaren arloan aplikatu beharreko araudia betetzen dutela egiaztatzea, eta EEEko zuzendaritza nagusiari aurkeztea horiei onarpena emateko.
- b) Eskaintzak balioztatzeko txostenen inguruko azterketak egitea, zerbitzu teknikoek prestatuak eta EEEko zuzendariak edo sozietate bakoitzeko ahaldunek proposatuak, 15.000 euro edo goragoko kontratu guztietarako, eta hala badagokio, ekonomikoki egokiena edo onuragarriena den eskaintza deklaratzeko proposamena.
- c) Aurreikusitako balioa 15.000 euro baino gutxiagokoa den kontratazioen zaintza, EEE Taldeko erakunde/sozietate bakoitza eta guztien kontratuei dagokienez. Kontratazio Batzordeak aipatutako kontratazioen berri izango du, eta hala badagokio, kontratu horietaz informazio gehiago eskatuko du eta egokitzat joko dituen gomendioak egingo ditu. Horretarako, kontratuen koadro bat onduko da, banaka eraturia, 15.000 eurotik beherako kontratu guztiak azalduko dituen, eta bertan honako informazio hau agertuko da: "kontratuaren xedea", "esleipenduna", "zenbatekoa", "egiteko data" eta "kontratatzekeo ardura duen sail/atal edo sozietatea".
- d) Lizitatuak denboran eta forman aurkezten duten dokumentazio administratiboa aldez aurretik kalifikatzea, eta aurkezten den dokumentazioan akats edo gabezia materialak zuzentzeko eskatzea lizitatuak. Horretan oinarrituta, azkenik, aurkezten diren proposamenak onartzeko edo baztertzeko proposatzea kontratazio organoari.
- e) Onartzen diren eskaintzak irekitzea ekitaldi publikoan.
- f) Proposamenen baten ausarkeria aztarnarik sumatuz gero, kasu horietarako aurreikusten

En los casos de ausencia de cualesquiera de los Vocales, se podrá delegar el voto en cualquier otro Vocal que vaya a estar presente en la reunión. Asimismo, en caso de ausencia del Secretario/a, realizará las funciones de dicha figura cualquiera de los/las Vocales presentes en la reunión, llevando a cabo su designación al inicio de la sesión.

3º) Funciones y atribuciones

Las funciones y atribuciones del Comité de Contratación serán las siguientes:

- a) Verificar el cumplimiento de la normativa aplicable en materia de contratación de los expedientes de contratación y pliegos relativos a EVE, SHESA, HARANA-KONTRASTA, BIMEP y CADEM y elevarlos para su aprobación a la Dirección General del EVE.
- b) Análisis de los Informes de Valoración de las Ofertas, elaborados por los servicios técnicos y propuestos por los Directores/as del EVE o Apoderados/as en las Sociedades correspondientes, para todos los contratos de importe igual o superior a 15.000€, y propuesta de declaración de oferta económicamente más ventajosa, en su caso.
- c) Vigilancia sobre las contrataciones cuyo valor estimado sea inferior a 15.000€, que se realicen en todos y cada uno de los Entes/Sociedades del Grupo EVE. El Comité de Contratación tomará conocimiento de dichas contrataciones, solicitando en su caso mayor información respecto a alguno de dichos contratos y realizando las recomendaciones que estime convenientes. Para ello se elaborará, un cuadro de contratos en el que, individualmente, figuren todos los contratos inferiores a 15.000€, con información relativa a "objeto del contrato", "adjudicatario/a", "importe", "fechas de realización" y "departamento/área o sociedad responsable de la contratación".
- d) Calificar previamente la documentación administrativa presentada en tiempo y forma por los licitadores y requerir a los licitadores que subsanen los defectos materiales observados en la documentación presentada. En base a ello, finalmente proponer al órgano de contratación la admisión e inadmisión de las proposiciones presentadas.
- e) Proceder en acto público a la apertura de las ofertas admitidas.
- f) Tramitar el procedimiento previsto al efecto cuando considere que alguna proposición esté

den prozedurari ekitea.

- g) Ausarkerian dauden proposamenak onartzeko edo baztertzeko proposatzea kontratazio organoari.
- h) Urteko Kontratazio Plana prestatzea, kontratazio-organoak onar dezan.
- i) Proposamena aurkeztu aurretik, kontratuaren xedearekin zerikusia duten eta beharrezkotzat jotzen dituen txostenak eskatzea.
- j) EEEren kontratazio jarduerari lotutako edozein aspektu edo eragiketaren inguruan proposamenak aurkeztea EEEko Zuzendaritza Kontseiluari, egoki iruditzen zaionean.
- k) Orokorrean, kontratazioaren araudiak kontratazio mahaiei agintzen dizkien edozein egiteko edo zeregin aurrera eramatea.

Goraxeagoko d), e) eta f) ataletan aurreikusten diren zereginetan eta garapenean batzordeko beste kide batzuek parte ahal izateko aukera bazter utzi gabe, berariazko ahalmena izango dute berez, solidarioz eta berezi gabe, izaera orokorraz, besterik edo kontrakorik adierazi ezean, Kontratazio Batzordeko idazkariak edozein batzordekiderekin batera.

4. Bilerak eta deialdiak

Kontratazio Batzordea, ohikotasunez, hilean behin bilduko da, eta ohiz kanpoko egoeretan, arrazoi justifikatuak tarteko, Batzordeko presidentek egokitzen jotzen duenean.

Batzordeko idazkariak egingo du deialdia, presidentearen aginduz, bilera egingo den egunean baino hiru (3) egun baliodun, gutxienez, lehenago eginez deialdia.

Deialdia bide elektronikoz egingo da, eta harekin batera, akordioak eztabaidatzeko eta hartzeko behar den informazioa bidaliko da.

Akordioak eztabaidatzeko eta hartzeko behar den dokumentazioa ez bada jasotzen horretarako ezarritako hiru (3) egun balioduneko gutxienekoaurrerapenarekin, eta batzordeko kideren batek hala eskatzen badu, aztertu beharreko gaia ez da Kontratazio Batzordearen deialdiko gai-zerrendan sartuko, eta, beraz, hurrengo bilerara arte itxaron beharko da jorratzeko.

incurra en temeridad.

- g) Proponer al órgano de contratación la aceptación o rechazo de las proposiciones incuras en temeridad.
- h) Elaboración del Plan Anual de Contratación para su aprobación por el órgano de contratación.
- i) Solicitar, antes de formular propuesta, cuantos informes técnicos considere precisos y se relacionen con el objeto del contrato.
- j) Formular al Consejo de Dirección del EVE las propuestas sobre cualquier aspecto u operación que se estime pertinente, relacionada con la actividad de contratación de EVE.
- k) En general, cualesquiera funciones que la normativa de contratación encomiende a las mesas de contratación.

Sin perjuicio de que puedan asistir y participar otros/as miembros del comité en el desempeño y desarrollo de las atribuciones previstas en los apartados d), e) y f), quedan expresamente facultados para realizarlas por sí mismos/as solidaria e indistintamente con carácter general y salvo revocación expresa al respecto, el/la Secretario/a del Comité de Contratación junto a cualquiera de los/las vocales.

4º) Reuniones y convocatorias

El Comité de Contratación se reunirá, con carácter ordinario, una vez al mes y de manera extraordinaria, cuando por razones justificadas, así lo estime el/la Presidente/a del mismo.

La convocatoria del comité la efectuará el/la Secretario/a por orden del Presidente/a con una antelación mínima de tres (3) días hábiles respecto a la fecha de celebración.

La convocatoria se realizará por medios electrónicos, debiendo acompañarse de la documentación necesaria para la deliberación y adopción de acuerdos.

En caso de no recibirse la documentación necesaria para la deliberación y adopción de acuerdos con la antelación mínima de tres (3) días hábiles prevista al efecto, si así lo solicita cualquiera de los/las miembros del Comité, el tema a tratar no será incluido en el orden del día de la convocatoria del Comité de Contratación debiendo esperar a la celebración de la siguiente reunión.

5. Funtzionamendua

Batzordearen baliozko eraketarako, gutxienez, hiru (3) kideren presentzia behar izango da.

Batzordearen baliozko eraketa burutu ondoren, eskatzen den gutxieneko quoruma kontuan hartuta, bilera egin ahal izango da, eta bertan hartuko dira egokitzat joko diren akordio guztiak.

Bilerara bertaratu ezinaren aurrean, Batzordeko kideek lehendakariaren esku utzi ahal izango dute botoa, edo, presidentea ez bada bertaratu, gainerako kideen esku.

Absentziaren kasuan, eta oro har, justifikatutako arrazoiren bat egoten denean, presidentearen eta idazkariaren zereginak Batzordeko beste kide batzuek egingo dituzte, bileraren hasieran aukeratuko diren kideak, hain zuzen ere.

6. Akordioak hartzea

Batzordearen akordioak gehiengo soiluz hartuko dira, bertaratuko diren kideen artean. Berdintasunik gertatuz gero, presidentearen kalitateko botoaz erabakiko da.

Batzordeko kide guztiak izango dute hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea, idazkariak izan ezik, hitz egiteko eskubidea baino ez baitu izango.

7. Batzordeari aholkularitza teknikoa

Egingo diren bileretan parte hartzeko, teknikarien edo adituen presentzia eska dezake Batzordeak, aholkularitza espezializatua emateko asmoz soilik.

Teknikari edo aditu horiek hitz egiteko eskubidea izango dute, ez botoa emateko, eta haien txostenak ez dira bete beharrekoak edo lotesleak izango.

8. Aktak

Kontratazio Batzordeak egingo duen bilera bakoitzaren akta egingo da; idazkariak egingo duen akta horretan honako datu hauek jaso beharko dira: bileraren eguna, lekua eta hasieraren ordua, gaitzerrenda, jorratutako gaiak, emandako botoen emaitza, hartutako akordioak eta egiten diren proposamenak.

5º) Funcionamiento

Para la válida constitución del Comité se requerirá la presencia de al menos tres (3) de sus miembros.

Una vez constituido válidamente el Comité, habiéndose respetado el quórum mínimo exigible, podrá celebrarse la reunión adoptándose cuantos acuerdos procedan.

Ante la imposibilidad de asistir a la reunión, los/las miembros del Comité podrán delegar su voto en el/la Presidente/a o, en caso de ausencia de éste/a, en cualquiera de los/las restantes vocales.

En casos de ausencia y, en general, cuando concurra alguna causa justificada, las funciones del Presidente/a y Secretario/a se ejercerán por aquellas personas del Comité que se designen al inicio de la reunión.

6º) Adopción de acuerdos

Los acuerdos del Comité se adoptarán por mayoría simple de los/las miembros asistentes. En caso de empate, se decidirá por voto de calidad del Presidente/a.

Todos los miembros del Comité tendrán voz y voto, excepción hecha del Secretario/a, que solo tendrá voz.

7º) Asistencia técnica al Comité

El Comité podrá requerir la asistencia de técnicos/as o expertos/as a reuniones que se celebren a los solos efectos de prestar asesoramiento especializado.

Estas personas técnicas tendrán voz, pero no voto, y sus informes u opiniones no serán vinculantes.

8º) Actas

De cada reunión que celebre el Comité de Contratación se elevará acta por el/la Secretario/a que especificará necesariamente la fecha, hora de comienzo y lugar de la reunión, los asistentes, el orden del día, los asuntos tratados, resultado de votos emitidos, acuerdos y propuestas que se realicen.